

## Donostiako indarkeria

*Deia*, 1983-08-16.

Donostiako jai nagusiei hasiera emateko Santa Mariako elizan urtero, tradizio luzez, abesten den Salbera etorri ohi izan dira herriko agintariak.

Eusko Jaurlaritza dugun ezkeroztik, Lehendakari jauna, eta beti hiriko Alkate jauna.

Igandean hor ziren herriak aukeratutako bi agintariak beren emazteekin eta dagozkien kontseilari, zinegotzi eta beste ordezkariez inguraturik. Udaletxea herriarena da, kaleak ere bai, baita eliza ere. udaletxearen aurrean bildu zen, eskubide osoz, jende multzoa; hau aldarrikatzen hasi zen gaiak, iritziak eraginda direnez, defendagarri izan daiteke.

Honeraino ez da zigorgarri den ezer.

Baina ez gaitezen zozokeri honetan geld; hor bildu eta deihadarka ari direnak ez ziren horretan geratzera etorri; gure herriko agintariak iraindu nahi dituzte, eta ez hitzez bakarrik, baita harriz, aulkiz, atzaparretaratu ahal duten guztiaz. Hertzainak, horretarako gertaraziak izan baitira herriaren aginduz, erantzun zezaketen eskubidea duten legez, hala ere probokatzaileen harrapagailuan eror ez daitezen, gaitezen!, agindua hartu dute; ez diote erasoari eutsi besterik egingo. Eta, joko aurrera doha, probokatzaileak ba daki hori, eta gero eta ausartago ari da erasoan.

Pertsona asko 69, irten da borroka berezi honetatik zauritua; Alkatea bera horien artean, eta hamazortzi hertzain.

Probokatzaileak usteko du, agian, bataila hori irabazi duela. Armatu *behar* zuena armatu duelako, jaien hasiera ospetsuena itsusitu ahal izan duelako.

Ez dira konturatzen, edo bai!, eskalada baten maila igo dutela. Hanka hori nahita sartu badute, gure herriaren zorigaiztorako pauso ankerra eman dutela; 1) gure arteko borroka antzuari hasiera eman diote hurrengoan ez baitu, agian, hertzaingoak agindu bera hartuko; 2) gure herriko mutilak ez dira kanpotik bidalitako, eragingarri gabeko eta herrian babesik aurkitzen ea duten horietakoak; 3) hurrengorik ez balitz hobe!, baina taktikaz eskalada honen bila ibil daitezkenak jakin behar lukete herri honek orain arte gorde duen zerbait, handia eta preziatua, anaitasunaren eragina, galduko litzatekela.

Eta odola, elkar eusten gaituen isurkorra eta izpiritua, biak batera, den hori isuritzen bada, ez dela errekuaragarri erraza.

Zozoenak ere ba dakit horretaz nori erraz errekuaratu ginuzteken!!